

EGOERA LARRI BAT

Aiora Yurrebaso, 13 urte

Igorre

Kontatuko dizuedana sineztezina iruditzen bazaizue ere, nik iazko udazkenean pertsona bat hil nuen. Bai, hala da. Hirurogeita hamar urteko agure bat naiz, itxura onekoa eta oraindik indartsu sentitzen naiz, kirola egitea betidanik izan baitut gustuko. Oraindik ez dizuet esan, Nikasio dut izena eta alargundu nintzenetik nire alabaren etxean bizi naiz, haren senar eta ilobarekin. Lehen postetxean egiten nuen lan, baina orain erretiratua nago. Nik ere baditut neure zereginak, besteek pentsatu ez arren. Neure lagunekin kartetan jolastea eta berriketan egotea atsegin dut. Arratsaldero Auroraren etxera joaten gara Cesar, nire aspaldiko laguna eta biok. Aurora ez da nire etxetik urrun bizi, kale bat gorago besterik ez, Naranjos kalean. Cesar gaueko bederatziak aldera itzultzen da bere etxera, ni, berriz, ordu erdi bat beranduago. Emakume horrek, ez zuen diru arazorik, baina diru kontuetan asko begiratzen zuen argindarra aurreratzeko, eskaileratan ez zuen argirik eta jaitsi

behar izaten genuenean, hor ateratzen zen emakumea kriseilua eskuetan zuela behera iritsi arte.

Azaroaren bigarren eguna zen, eta egunero bezala, bederatzi eta erdietan neure lagunaren etxetik irten nintzen. Atarira heldu bezain pronto, bost pertsona topatu nituen nire aurrean. Nik ez nuen kasu egiteko asmorik, baina beraiek traba egiten zidaten eta ezin izan nuen aurrera egin. Ilunpean geunden eta ezin nituen ondo ikusi. Erditik kentzeko eta baketan uzteko esan nien, baina hauek ez zidaten kasurik egiten eta zentzu gabeko gauzak esaten hasi ziren:

– Zu, sasimediku hori, petrikilo halakoa!

Haietariko bat beti aurrean zegoen eta bultzaka hasi ziren. Mozkor eginda zeudela pentsatu nuen. Ni gero eta urduriago nengoen, haiek nigandik gero eta hurbilago baitzeuden, bultzakadak gero eta urduriagoak ziren. Haien ahotsak entzuten nituen:

– Orain guk kenduko dizkizugu aurpegiko begiak!

Hau entzundakoan eta aurreko gizona nire gainera zetorrenean, indar guztiekin jo nuen eta lurrera erori zen. Orduan beste guztiek ihes egin zuten eta guztiz harrituta atera nintzen. Kaletik nindoala, txapela falta zitzaidala konturatu nintzen, eta berriro ere Auroraren etxeko atarira joan nintzen eta han zegoen txapela, zoruan zegoen gizonaren ondoan. Orduan ni benetan ohartu nintzen egoera larriaz. Gizon hura hilda zegoen eta ez zuen arnasarik hartzen. Ez dut korrika egin-

go, nireak egin du, kartzelara eramango naute, pentsatu nuen. Etxera heldu nintzenean, ez nuen afaltzeko gogorik eta oheratu egin nintzen. Hura izan zen gau neketsua, ezin izan nuen inondik inora lorik hartu. Gau osoan ametsetan nengoen, ezin bainuen gertatutakoa burutik kendu. Norbait jakitearen beldurra nuen. Hurrengo goizean nire alabak egunero bezala egunkaria ekarri zidan:

– Aita, ez al duzu ondo lo egin? Aurpegi txarra duzu - esan zidan.

– Oso ondo egin dut lo! - erantzun nion.

Bakarrik geratu nintzenean, egunkaria begiratzeko hasi nintzen presaka, gertatutakoaren berri ekarriko zuen eta irakurtzeko irrikan nengoen. Hasieran ez nuen ezer ikusten, baina bapatean berri hau irakurri nuen:

‘MAIZTEGI’ EROETXETIK LAU GAIXOK IHES EGIN DUTE

Ospitale honetan, ohitura den bezala, gaixo batzuk laguntza ematen dute zeregin batzuetan, adibidez hildakoak autopsia-gelara eramaten. Atzo gela horretara lau gaixo gorpu bat eramaten zihozela, kanpoko ate bat zabalik ikusi zuten eta hildako eta guzti ospitaletik alde egin zuten. Lau eroak berriz ere bueltatu ziren eta bosgarrena, hildakoa, Naranjos kalean, 24 zenbakian, aurkitu zuten udaltzainek.